



## Irakasleen prestakuntza

### **Erreziklai barnetegi esperientzia bat**

*Aitor Etxebarria*

Euskaltegi gehienetan gertatuko da Santurtzikoan gertatzen zaiguna: eguneroko lanak hainbat kezka, zalantza, hausnarketagai, sugerentzia e.a. sortarazten digula. Baina eguneroko ardurei erantzuteak (programazioak, ikasleen nolabaiteko jarraipena egiteak...) ia ordu guztiak lapurtzen dizkigu. Horrezaz gain, txanda edo ordutegi ezberdinetan lan egitea oztopo handia da denok eta luzaro biltzeko: hilabetean behingo klaustroa, koordinazio-bilerak ... eta nahiko! Hori dela eta, ia ezinezkoa bilakatu da sortutako kezka eta galderez lasai, luze eta zabal hitz egitea eta ondorio batzuetara heltzea.

Ba, gure kasuan, aspaldian gogoan generaman ideia bat burutzea erabaki genuen: irakasleen arteko birziklai barnetegitxo bat egitea. Data eta tokia oso aurretiaz zehaztuta genuen: maiatzaren 16-17ko asteburua; Legazpiko Udalak Brinkola auzoan duen aterpetxea (oso egokia, "por zierto"). Hasieratik ere erabakia genuen asteburu honetan parte hartzea erabat boluntarioa izango zela eta horrela zazpi irakasle eta bi idazkariak animatu ginen esperientzia hau egitera.

#### **Barnetegiaren prestaketa**

Hilabete bat lehenago bildu ginen joateko asmoa genuenok, gure interesak eta ardura zeintzuk ziren jakiteko eta hauen arabera astebururako plan bat asmatzeko.

Barnetegiak bi atal nagusi izango zituen:

- a. Bata, egiten ari garen lan osoaren berrikusketa ahalik eta sakonena egitea.
- b. Bestea, bide berriak arakatzea, irakurketa-laburpenen bitartez. Atal honetarako *Zutabe* eta *Itzulpen Sailako* zenbait artikulua interesgarri aukeratu genituen: Hiztegia nola landu, Eduki berriak nola aurkeztu, Aberastasuna, Eztabaida erabilgarriak nola bultzatu ... Honezaz gain, euskaltegian dugun zenbait materialen aurkezpena eta azterketa egitea erabaki genuen: AEK hormirudiak, "Hitzetik Hortzera", HABEren

“Sortuz” (Idazmenean sakontzeko langaiak) eta “Alfabetatzerako Langaiak: Bizkaieratik Baturantz”.

Lan hau burutzeko ardurak geure artean banatu genituen, barnetegi-rako norik bere atalaren txostentxoak prestatuko zuelarik.

### **Barnetegiaren garapena**

Larunbat goizean, heldu bezain pronto, bakoitzak bere lan teorikoari buruz prestatutako txostenaren aurkezpena egin zuen, honen laburpen-txostena aurretiaz idatziz eta fotokopiatuak eman zigularik. Aurkezpen bakoitzaren ondoren galderak, azklarazioak, hausnarketak eta aportazio kritikoak egin genituen. Agian interesgarriena euskaltegian ditugun zenbait materialen aurkezpena izan zen, honek debate nahiko interesgarria planteatu bait zigun, bereziki idazmenaren lanketaren inguruan.

Larunbat arratsalde berri ekin genion lanari (ondo bazkaldu ondoren, noski) eta oraingo honetan “Egindako bidea berrikusten” lanari lotu gintzaizkion. Honetarako bi galdetegi prestatu genituen.

Lehenengoak, larunbat arratsaldean landu genuenak, gure ikasprozesuaren planteamendu orokorraren hausnarketara gonbidatzen gintuen: ikasprozesuaren iraupena, honen banaketa posiblea zikloetan, ziklo hauek nola planteatu genitzakeen, datozkigun ikasleen espektatiba eta jarrera ezberdinak eta hauen aurreko estrategiak, irakaskuntz estiloa (agian hizkuntz formetan oinarrituegia ...). Arazoak hauek zirelarik, berauentzako konponbideak eta hauen ondorioak aztertu genituen.

Lan nahiko egin genuela eta, iluntzean Segurara joan ginen eta, hango sargardoa dastatu ondoren, gau-partea Legazpin eman.

Igande goizez geure lana berrikusten segitu genuen galdetegi berri batekin. Galdetegi hau aurreko planteamendu orokorra burutzeko ditugun bi tartekoei zegokien:

- koordinazio-sistema (urratsena, koordinazio orokorra);
- programazioa eta klasea antolatzeko eredu standarra;
- ekintza osagarriak.

Hala ere, 1. puntua aztertzerako baino ez ginen heldu, denbora-faltaz (asteko nekeak eta bezperako parrandak ere beren zerikusia izan zuten honetan).

### **Ondorioak**

Legazpin hitz egindako guztiarekin txosten bat prestatu dugu klaustroan aurkezteko, eta honek bere oneritzia eman diezaien (hala baderitzo) beharrezkoak diren aldaketa eta aportazioekin. Txosten hau fotokopiatuak emango diogu irakasle bakoitzari, bertan puntu erabakiorrak azpimarratzen ditugularik.

Barnetegia baloratzerakoan, nahiz eta oso topikoa bihurtu, guztiz positiboa izan dela esan beharra dugu (halaxe uste dugu eta); alde batetik, sarkonketa berezia eskatzen duten zenbait arloren inguruan ibili izan gare-lako, arazo eta puntu hauen oinarritaino iristeko astia izan dugulako; eta, bestetik, gune aproposa izan delako, irakasleok euskaltegia ez den topalekua izan dugulako, geure harreman eta elkarlanean hobetzeko.

Gure esperientziaz fidatzen bazarete, egin ezazue frogak.